

BILBOKO

27.

KALE ALDIA



KALEKO
ANTZERKI &
ARTEEN
JAIALDIA

FESTIVAL
D TEATRO
Y ARTES
D CALLE

EKAINAK
JUNI

29

UZTAILAK
JULI

4 2026

bilbokokalealdia.eus



KULTURA JASANGARRIA
CULTURA SOSTENIBLE



BABESLEAK:



Cofinanciado por la UNIÓN EUROPEA
Cofinancé par l'UNION EUROPÉENNE

LAGUNTZAILEAK:



HEMENGO BAZKIDEA DA:



bilbokokalealdia.eus



KALEKO
ANTZERKI & TEATRO
ARTEEN
JAIALDIA

FESTIVAL
DE
Y ARTES
DE CALLE

EKAINAK 29
JUNIO
UZTAILAK 4
JULIO
2026

BITARTEKARITZA ARDATZ

BILBOKO KALEALDIA Jaialdiak uste osoa du lekuko eragileekin garatutako bitartekaritza artistikoko prozesuak direla ohiko espazio publikoak eraldatzeko baliabiderik aberatsenak eta eraginkorrenak; lekuan lekuko eskolak zein kultur-eragileak dira proiektu eraldatzaileen ardatz nagusia. Aurtengo edizioan, "Hortmuga Teatroak" "Dantzerti-Euskadiko Antzerki eta Dantza Goi-Mailako Eskolarekin" elkarlanean, bitartekaritza-jarduera jarriko du ekimen artistikoaren erdigunean, kaleko arteen inguruan hausnarketa egin eta eraldaketarako tresna baliotsu bezala aurkeztuz. Era horretan, eta Casilda Iturrizar parkeari balio erantsia eta esanahi berria eman asmoz, "Hortmuga Teatroa" eta "Dantzerti Eskolako" ikasleen artean sortutako *Zelatan* pieza eszenikoa aurkeztuko da bitartekaritza saio horien emaitza gisa.

Lekuko eragileen zuzeneko parte hartzea eta erabiltzaileen ikuspegia erdigunean jarri nahi da, egunerokotasuna eta artearen arteko zubia eraikitzeko. **Arteak ez baitu zentzurik ez bada partekatua, mirestua eta ikusarazia. Eta espazio publikoak ez dira publiko, erabiltzaileek erabiltzen eta eraldatzen ez badituzte.**

EKAINA

EKAINAK 29, ASTELEHENA

CASILDA ITURRIZAR PARKEA

17:00 AHATEEN URMAELAREN INGURUAK (1. GUNEA)

BERCEURS DU TEMPS (Kanada) Kulunkatu denbora / Bercer le temps (arratsalde osoa)

17:00 AHATEEN URMAELAREN INGURUAK (3. GUNEA)

FACTORÍA NORTE Y EL ENCUENTRO TEATRO (Asturias) Dormiyosos (45 min)

17:15 AHATEEN URMAELAREN INGURUAK (4. GUNEA)

LE POLPESE (Frantzia) Attention à ta tête (45 min)

18:00 AHATEEN URMAELAREN INGURUAK (2. GUNEA)

EA EO (CIE) (Frantzia) Dans ma Piscine (40 min)

18:45 PERGOLA

LA VENIDERA (Madril) NO (pieza corta) (20 min)

19:00 AHATEEN URMAELAREN INGURUAK (3. GUNEA)

FACTORÍA NORTE Y EL ENCUENTRO TEATRO (Asturias) Dormiyosos (45 min)

19:15 AHATEEN URMAELAREN INGURUAK (4. GUNEA)

LE POLPESE (Frantzia) Attention à ta tête (45 min)

20:00 AHATEEN URMAELA

FURINKAĪ (COMPAGNIE) & L'ENTROUVERT (THÉÂTRE DE) (Frantzia) Mizu (45 min)

20:45 PERGOLA

LA VENIDERA (Madril) NO (pieza corta) (20 min)

21:00 AHATEEN URMAELAREN INGURUAK (2. GUNEA)

EA EO (CIE) (Frantzia) Dans ma Piscine (40 min)

ARRIAGA PLAZA

22:00 CAPICUA CÍA. (Aragoi) Ruta (50 min)

EKAINA

EKAINAK 30, MARTITZENA

CASILDA ITURRIZAR PARKEA

17:00 AHATEEN URMAELAREN INGURUAK (1. GUNEA)

BERCEURS DU TEMPS (Kanada) Kulunkatu denbora / Bercer le temps (arratsalde osoa)

17:15 AHATEEN URMAELAREN INGURUAK (3. GUNEA)

LA TRAPECIONISTA (Nafarroa - Euskal Herria) Zuhamu (40 min)

18:00 AHATEEN URMAELAREN INGURUAK (2. GUNEA)

EA EO (CIE) (Frantzia) Dans ma Piscine (40 min)

18:45 PERGOLA

LEIRE MESA (Euskal Herria) La carencia de la diferencia (50 min)

19:00 AHATEEN URMAELAREN INGURUAK (3. GUNEA)

FACTORÍA NORTE Y EL ENCUENTRO TEATRO (Asturias) Dormiyosos (70 min)

19:30 AHATEEN URMAELAREN INGURUAK (5. GUNEA)

ROUGE ELEA (Iparralde - Euskal Herria) Lurruna (40 min)

20:00 AHATEEN URMAELA

FURINKAĪ (COMPAGNIE) & L'ENTROUVERT (THÉÂTRE DE) (Frantzia) Mizu (45 min)

20:45 AHATEEN URMAELAREN INGURUAK (2. GUNEA)

EA EO (CIE) (Frantzia) Dans ma Piscine (40 min)

ARRIAGA PLAZA

22:00 HIKA TEATROA & OINKARI DANTZA TALDEA (Euskal Herria) Makil hotsak (55 min)

UZTAILA

UZTAILAK 1, EGUAZTENA

CASILDA ITURRIZAR PARKEA

17:00 AHATEEN URMAELAREN INGURUAK (1. GUNEA)

BERCEURS DU TEMPS (Kanada) Kulunkatu denbora / Bercer le temps (arratsalde osoa)

17:30 AHATEEN URMAELAREN INGURUAK (3. GUNEA)

LA TRAPECIONISTA (Nafarroa - Euskal Herria) Zuhamu (40 min)

18:15 PERGOLA

LASALA (Euskal Herria) Burnt (13 min)

18:30 AHATEEN URMAELAREN INGURUAK (2. GUNEA)

HIPPANA.MALETA (Belgika) Runners (60 min)

19:30 AHATEEN URMAELAREN INGURUAK (4. GUNEA)

KEEP COMPANY (Frantzia) Underfoot (45 min)

20:15 PERGOLA

LASALA (Euskal Herria) Burnt (13 min)

20:30 AHATEEN INGURUAK

HORTZMUGA TEATROA (Euskal Herria) Zelatan (35 min)

ARRIAGA PLAZA

22:00 DE VACAS (Galizia) Rebovina Divas Live (75 min)

UZTAILA

2 UZTAILA, JUEVES

CASILDA ITURRIZAR PARKEA

17:00 PERGOLA

TXEMA MUÑOZ (Katalunia) Gota (45 min)

17:45 ARTE EDERREN MUSEOAREN GUNEA

MARGARIDA MONTENY (Portugal) Blue (40 min)

18:30 AHATEEN URMAELAREN INGURUAK (2. GUNEA)

HIPPANA.MALETA (Belgika) Runners (60 min)

19:15 AHATEEN URMAELAREN INGURUAK (4. GUNEA)

KEEP COMPANY (Frantzia) Underfoot (45 min)

20:00 PERGOLARANTZ PASEALEKUA

KANKARRO CÍA. (Euskal Herria) Kankarro (55 min)

20:30 PERGOLA

TXEMA MUÑOZ (Katalunia) Gota (45 min)

21:00 ARTE EDERREN MUSEOAREN GUNEA

MARGARIDA MONTENY (Portugal) Blue (40 min)

PLAZA BIRIBILA – ARRIAGA PLAZA

22:00 DEABRU BELTZAK (Euskal Herria) Su Talka (45 min)

UZTAILA

UZTAILAK 3, BARIKUA

17:30 AREATZA

PERE HOSTA (Katalunia) Woof (40 min)

18:00 BIZIKIDETASUN PLAZA (Isozaki dorreen artean)

ZIRKOZAUURRE (Euskal Herria) Ardatzak (50 min)

18:30 BIZKAIA ARETOA - EHU

RETOURAMONT (Frantzia) L'Angle Disparu (25 min)

19:00 SAN FRANTZISKOKO HIRI ORTUA (Mariaren Bihotza plaza)

LOS GALINDOS (Katalunia) MDR – Muerte de risa* (70 min)

19:30 AREATZA

KOILARA TEATRO (Euskal Herria) La llegada (45 min)

20:00 BIZIKIDETASUN PLAZA (Isozaki dorreen artean)

ZIRKOZAUURRE (Euskal Herria) Ardatzak (50 min)

20:30 AREATZA

PERE HOSTA (Katalunia) Woof (40 min)

21:00 BIZKAIA ARETOA - EHU

RETOURAMONT (Frantzia) L'Angle Disparu (25 min)

22:30 BIZKAIA ARETOA – EHU

INSECTOTRÒPICS (Katalunia) La conferencia de los pájaros* (45 min)

*Sarrera gonbidapenarekin. www.bilbokokalealdia.eus web orrian erreserbatu ahal izango dira.

UZTAILA

UZTAILAK 4, ZAPATUA

17:30 AREATZA

BITSA KONPAINIA (Euskal Herria) Haritik tiraka (40 min)

18:00 BIZIKIDETASUN PLAZA (Isozaki dorreen artean)

PERE HOSTA (Katalunia) Dis_order (35 min)

18:30 AREATZA

TRAPU ZAHARRA (Euskal Herria) La última y nos vamos (60 min)

19:00 SAN FRANTZISKOKO HIRI ORTUA (Mariaren Bihotza plaza)

LOS GALINDOS (Katalunia) MDR – Muerte de risa* (70 min)

19:30 AREATZA

BITSA KONPAINIA (Euskal Herria) Haritik tiraka (40 min)

20:00 BIZIKIDETASUN PLAZA (Isozaki dorreen artean)

PERE HOSTA (Katalunia) Dis_order (35 min)

20:30 AREATZA

TRAPU ZAHARRA (Euskal Herria) La última y nos vamos (60 min)

21:30 AREATZAKO KAIA

SWEET CHILLI CIRCUS COMPANY (Aragoi) Transh-Humante(s)" (50 min)

23:00 ARRIAGA PLAZA

SOL PICÓ (Katalunia) Carrer 024 (50 min)

*Sarrera gonbidapenarekin. www.bilbokokalealdia.eus web orrian erreserbatu ahal izango dira.



KALEKO
ANTZERKI &
ARTEEN
JAIALDIA

FESTIVAL
DE TEATRO
Y ARTES
DE CALLE

EKAINAK 29
JUNI
UZTAILAK 4
JULI
2026

BILBOKO KALEALDIAREKIN ONDO PASATZEKO AHOLKUAK

- Kontsultatu gure programazioa jaialdiaren webgunean eta Facebooken eta Bilbao Kulturaren sareetan. Eskura izango duzu guztia, eta paper eta material gutxiago kontsumituko dugu.
- Errespetatu artistak eta haien lana. Ezinbestekoa da guztiok ondo pasatzeko, baina are gehiago artistentzat. Gogoan izan gu dibertitzeko ari direla lanean!
- EZ utzi bakarrik umek. Bizi ezazu haiek kaleko arteen esperientzia. Eta familian 4 hankako kideren bat badago, zaindu bera ere, ez utzi aske.
- Utzi kezka guztiak albo batera (eta mugikorra isilean).
- Begiratu zeure begiekin eta ez egin argazkirik edo bideorik mugikorrarekin, gero erreportaje onak izango dituzu gure webgunean eta sareetan.
- Ez diezazutela beste batzuek kontatu, zatoz Bilboko Kalealdira!

IKUSKIZUNEN IRISGARRITASUNAREN INGURUKO PIKTOGRAMAK



Pertsona gorrak edo entzumen-arazoak dituztenentzako ikuskizun egokiak



Beharrian bereziak dituzten pertsonentzat gordetako eserleku eta espazioak*

*Ikuskizuna hasi baino 15 minutu lehenago arte

IKUSKIZUN MOTEI BURUZKO PIKTOGRAMAK



ANTZERKIA



DANTZA



DANTZA BERTIKALA



IBILTARIA



KLOWNA



ZIRKUA



MUSIKA



MAGIA



TXOTXONGILOAK



INSTALAZIOA



MULTIMEDIA

PUBLIKOARI BURUZKO PIKTOGRAMAK



DENONTZAT



GUTXIENKO ADINA



**BERCEURS DU
TEMPS (Kanada)**
"Kulunkatu
denbora/ Bercer
le temps"

Testurik ez

**EKAINAREN 29A,
ASTELEHENA, 30A,
MARTITZENA, ETA
UZTAILAREN 1A,
EGUAZTENA**

17:00

**CASILDA
ITURRIZAR
PARKEA- Ahateen
urraelaren
inguruan
(1. gunea)**



Laburpena

Lasaitasun poetikozko babeslekua da *Kulunkatu denbora / Bercer le temps* eta sehaska-kanten mundurako atea irekitzen du. Casilda Iturrizar parkean jarritako kulunkariak 2016an proiektua hasi zenetik bildutako doinuak xuxurlatzen dituzte: 2.700 sehaska-kanta baino gehiagoko bilduma, parte-hartzaileek 100 hizkuntza baino gehiagotan grabatuta. Grabazio-estudio mugikorra irekita egongo da sehaska-kantak partekatu eta arrastoa utzi nahi duten guztientzat. Haurtzaroko oroitzapenek artxibo bizia elikatzen dute eta instalazio parte-hartzaile honetako kulunkariak kantarazten ditu. Eseri, ireki belarriak eta eraman zaitzatela kulunka-aulki bateko bidaia arin batean.

<https://berceursdutemps.ca/>



**BITSA KONPAINIA
(Euskal Herria)**
"Haritik tiraka"

Euskara

**UZTAILAREN
4A, ZAPATUA**

17:30 / 19:30

AREATZA



Laburpena

Mudantza batean dagoen protagonistaren eta etxean bizi zen emakumearen arteko istorioa da.

Auzora datorren neska berriak emakumearen bizitza ezagutu eta bere eguneroko bizimodua kontatuko digu, mandatuak egitea poesiaz betetako ekiniza modura ikusiz eta horri garrantzia emanez.

Objektuek hitz egingo dute eta mandatuak egitearen eguneroko ekiniza sinplea balioz eta esanahiz beteko dute.



CAPICUA CÍA.
(Aragoi)
"Ruta"



Testurik ez

EKAINAREN
29A,
ASTELEHENA

22:00

ARRIAGA
PLAZA

Laburpena

Ruta ikuskizuna airean dagoen atari handi baten inguruan kokatzen da; atari horrek zerbitzugune bat irudikatzen du, eta han gertatzen da istorioa.

Eszenografia-elementu dinamiko gisa, auto bat agertzen da, istorioaren hari gidaria izango dena.

Ikuskizuna Route 66-ko antzinako zerbitzuguneetan inspiratzen da: denboran gelditutako espazioak, basamortu zabalek inguratuta, non modernitatea albo batera igaro dela dirudien.

Helburua giro malenkoniatsu eta poetiko bat sortzea da, umorearen eta absurdoaren ukituekin.

EKO – ZIRKUKO PIRINIOAK 2024-2027 aldirako lankidetzaz-proiektu bat da. 1.681.820 euroko aurrekontua dauka eta Europar Batasunak finantzatzen du % 65ean FEDER Eskualde Garapenerako Europar Funtsaren bidez eta Interreg V-A Espainia-Frantzia-Andorra programaren bidez (POCTEFA 2021-2027). POCTEFAren helburua mugaldeko inguruaren integrazio ekonomikoa eta soziala sendotzea da.

<https://capicuacirc.com/>



DE VACAS
(Galizia)
"Rebovina
Divas Live"



Gaztelera

UZTAILAREN
1A,
EGUAZTENA

22:00

ARRIAGA
PLAZA

Laburpena

"De Vacas" taldeak 90eko hamarkadako pop-aren izar handiei egiten die omenaldia: Whitney Houston, Céline Dion, Mónica Naranjo, Beyoncé... Haien abestiak lagun izan dituzte une zorionsuetan. Musika eta oinarri elektronikoekin bat egiten dute aulkian eserita ipurdia mugituz egindako koreografia ikusgarriekin.

Letrek —haien nortasun-ikurra— feminismoarekin, ekologismoarekin eta abarrekin daukaten konpromisoaren ildotik doaz.

<https://devacas.gal/>



Argazkia: J. Nicolas

DEABRU BELTZAK
(Euskal Herria)
"Su Talka"

Testurik ez

UZTAILAREN 2A,
EGUENA

22:00

PLAZA BIRIBILA –
ARRIAGA PLAZA



Laburpena

Talka, marruskadura, perkusioa. Danborren arteko talkak txinpartak sortzen ditu, transmititzen den energia. Perkusioaren eta suaren arteko topaketa ekartzen duen ikuskizuna da, koloreen, usainen, erritmoen eta argiaren espiral batean. Ibilbide horretan, publikoa indar akustikoaz eta mugimendu koreografikoaz kutsatzen da, ezin hobeto sinkronizatutako partitura pirotekniko batekin batera.

<https://deabrubeltzak.com/>



Argazkia: Paul Jacobs

EA EO (CIE)
(Frantzia)
"Dans ma Piscine"

Testurik ez

EKAINAREN 29A,
ASTELEHENA, ETA
EKAINAREN 30A,
MARTITZENA

18:00 / 21:00
(ASTELEHENA, 29)
ETA 18:00 / 20:45
(MARTITZENA, 30)

CASILDA
ITURRIZAR
PARKEA- Ahateen
urmaelaren
inguruak
(2. gunea)



Laburpena

2 metroko altuera eta 2 metroko zabalera duen akuario hexagonal batean, malabarista batek objektu arraro eta iragankorrak sortzen ditu, ur azpian manipulatuaz bizia emanez. 7 objektu, flotatzeko edo hondoratzeko 7 modu, 7 apnea publikoarentzat eta malabaristarentzat. Naturaren indarren aurkako alferrikako 7 borroka, emanaldiak dirauen bitartean bakarrik irabaziko direnak. Objektuak erori egiten dira, gu ere erori egiten gara; arnasa hartu behar dugu edo hil egingo gara, baina ikuskizunak irauten duen denbora laburrean, horretako ezer ez da egia izango.

<http://cieeaeo.com/>



**FACTORÍA NORTE
Y EL ENCUENTRO
TEATRO (Asturias)**
"Dormiyosos"

Testurik ez

**EKAINAREN 29A,
ASTELEHENA, ETA
EKAINAREN 30A,
MARTITZENA**

**17:00 / 19:00
(ASTELEHENA,
29) ETA 19:00
(MARTITZENA, 30)**

**CASILDA
ITURRIZAR
PARKEA – Ahateen
urraelaren
inguruak
(3. gunea)**



Laburpena

Dormiyosos hitz asturiarrak logura edo nekatuta daudenak esan nahi du. Hitzik gabeko edo oso hitz gutxiko instalazio eszenikoa da, poetikoa, soinu-zoko eta ikusizko espazio iradokitzaileen unibertsoa sortzen duena, jendearen irudimenerako atea zabalik utziz. Ikuskizun hau pentsatuta dago publikoari amets eta poetikazko espazio bat eskaintzeko, non sormena eta irudimena gauza posibleei irekitako leiho bihurtzen diren.

Dormiyosos-eko espazio eszenikoa pertsonaien habitat desberdinetan antolatuta dago: Asturiar-Kantabriako faunan inspiratutako gizaki eta animalia arteko erdibidean dauden hibridoak. Pertsonaia horiek Asturiar ondarearekin lotutako objektuak, lanbideak edo jarduera batzuk aurkeztuko dizkiete ikusleei.



**FURINKAI
(COMPAGNIE) &
L'ENTROUVERT
(THÉÂTRE DE
Frantzia)**
"Mizu"

Testurik ez

**LUNES 29 Y
MARTES 30
DE JUNIO**

20:00

**CASILDA
ITURRIZAR
PARKEA –
Ahateen urmaela**



Laburpena

Mizu (水) hitzak "ura" esan nahi du japonieraz. Ikuskizun honek Satchie Noro zirku-artista eta koreografoaren eta Élise Vigneron marionetista eta zuzendariaren munduak batzen ditu. Urarekin lotutako paisaia-pieza bat da, dantzari batek, izotzezko txontxongilo batek eta haren txontxongilariak osatutako hirukotea. Suspentsioari buruzko istorioa, metamorfosiari buruzkoa, iragankorra eta ispiluekin landutakoa. Sorkuntza honek artistek materia eta narrazioei buruz dauzkaten ikuspegiak elkarlotzen ditu, dantza, zirkuko arteak eta txontxongiloak uztartuz. Satchie Noro-rentzat, ikuskizuna espazio ez-konbentzionalen eta aparatatu arkitektonikoen mugimendu poetikaren jarraipena da, eta Élise Vigneron-entzat, azken hamar urteetako izotzaren inguruan egindako ikerketaren emaitza. Objektu artistiko bakar honek materiaren xuxurla erakusten digu: bikoteka, hirukoteka, izotzezko gorputzak eta haragizko gorputzak nahastuz.



HIKA TEATRO & OINKARI DANTZA TALDEA
(Euskal Herria)
"Makil hotsak"

Euskara

**EKAINAREN 30A,
MARTITZENA**

22:00

ARRIAGA PLAZA



Laburpena

Ikuskizunak gure oroimenera bidaia bat egitea proposatzen du, laurogeigarren hamarkadako intsumisioaren garai nahasietara. Gaur, berriro, gerraren mehatxua gugana hurbiltzen ari den honetan, lurra jotzen dugu hura maitatzen saiatzeko. Belaunaldi guztiok amestu behar genuke garaipen bat.

Kantuak, testuak, hotsak, dantzak, mugimendua, aurreko ikuskizunetan bezala, diziplina aniztasunaren alde egingo dugu. Aldarrikapena eta poetika bisualaz gain ikusleen partaidetza ere bultzatuko du.

<https://hikateatroa.eus/>



HIPPANA.MALETA
(Irlanda)
"Runners"

Testurik ez

**UZTAILAREN 1A,
EGUAZTENA, ETA
2A, EGUENA**

18:30

**CASILDA
IRTURRIZAR
PARKEA - Ahateen
urmaelaren
inguruak
(2. gunea)**



Laburpena

Zirku-ikuskizun honetan malabarismoa, objektuak eta soinuk uztartzen dira. Korrika egiteko makinaren gainean, bi malabarista korrika dabilta etengabe eta ezin dira gelditu, musikari batek joko eta esperimendu batzuen bidez gidatzen dituen bitartean. Esplorazio komikoa da: denboraren abiadura erreala eta hautematen dena, oinez dabilen gizakiaren bilakaera eta gero eta geldoagoa den kulturaren baitan aurrera egiteko gaitasuna aztertzen dituen.

<https://www.hippanamaleta.com/>



HORTZMUGA TEATROA (Euskal Herria) "Zelatan"

Testurik ez

UZTAILAREN 1A
EGUAZTENA

20:30

CASILDA
ITURRIZAR
PARKEA - Ahateen
urmaelaren
inguruak



Laburpena

Casilda Iturrizar parkean natura zelatan duzu, adi-adi. Han-hemen, badira izaki bizidun anitz, xebreak zein bitxiak, baina ez daude begi-bistan. Haiek aurkitzeko gai al zara? Ez ahaztu begiratzen ikasi behar duzula, agerikoaz haratago ikusteko. Baina, kontuz, kontua ez da bilatzea soilik, parkea ere zelatan duzu...

<https://hortzmuga.com>



Argazkia: Eva Balcels

INSECTOTRÒPICS (Katalunia) "La Conferencia de los Pájaros"

Testurik ez

UZTAILAREN 3A,
BARIKUA

22:30

BIZKAIA
ARETOA-EHU



Laburpena

Farid al-Din Attar poetaren Txorien hizketa liburuan (Mantiq al-Tayr, 1177), hegazi-talde batek bidaia espiritual bat hasten du Simurgh bilatzeko.

"Insectotrópics" lanak egokitzen du eta arreta jartzen die bidean galtzen diren hegaztiei, zalantzan daudenei, gelditzen direnei edo jarraitzeko beldurrez daudenei.

Bilaketa bakartia esploratu beharrean, lanak bidaia partekatua balioa nabarmentzen du. Konpainia, komunitatea eta entzuteko gaitasuna esperientziaren ardatz nagusi bihurtzen dira.

Hizkuntza eszeniko propioarekin, "Insectotrópics" zuzenean uztartzen ditu bideo-sorkuntza, pintura, arte bisualak, musika elektronikoa eta dramaturgia performatiboa, ingurune murgiltzaile eta eragin bisual handikoa sortzeko. Sorkuntza-prozesu kolektibo eta horizontala diziplinen elkargunean eta teknologiaren eta arte-jardueraren arteko elkarrizketan, erritualaren eta esperimendazioan oinarritzen da.

*Sarrera gonbidapenarekin www.bilbokokalealdia.eus Web Orrian erreserbatu ahal izango dira.

<https://insectotropics.com/>



KANKARRO CÍA. (Euskal Herria) "Kankarro"

Testurik ez

UZTAILAREN 2A,
EGUENA

20:00

CASILDA
ITURRIZAR
PARKEA-
Pergolara joateko
pasealekua



Laburpena


30 kilo lasto, 15 kilo sagar eta 230 kilo giza materia.

Zirkua, dantza eta zuzeneko musika elkartu egiten dira landa-inguruneetan materiaren grabitatea aztertzeko. *Kankarro* Euskal Herriko sagarraren kultura inspiratutako topaketa, bizikidetzara eta ospakizun ueña da.

Kantu bat astiro heltzen doan denborari, komunitatean eraldatzen doazen tradizioei, eta desagertzen ari dela dirudien edertasunari.

Jolasarekin, zintzotasunarekin eta aireko eta lurreko espazioaren arteko hauskortasunarekin berriz konektatzeko gonbidapena.

EKO – ZIRKUKO PIRINIOAK 2024-2027 aldirako lankidetzaproiektu bat da. 1.681.820 euroko aurrekontua dauka eta Europar Batasunak finantzatzen du % 65ean FEDER Eskualde Garapenerako Europar Funtsaren bidez eta Interreg V-A Espainia-Frantzia-Andorra programaren bidez (POCTEFA 2021-2027). POCTEFAren helburua mugaldekotutuz inguruaren integrazio ekonomikoa eta soziala sendotzea da.



Argazkia: Federico Cella

KEEP COMPANY (Frantzia) "Underfoot"

Testurik ez

UZTAILAREN 1A,
EGUAZTENA, ETA
2A, EGUENA

19:30
(EGUAZTENA,
1) ETA 19:15
(EGUENA, 2)

DOÑA CASILDA
ITURRIZAR
PARKEA- Ahateen
urraelaren
inguruak
(4. gunea)



Laburpena

Ezer ez da galtzen, dena eraldatzen da (gu ere bai!). Eta lur azpian murgilduko bagina gehiago jakiteko? *Underfoot* lanarekin, Abby Neuberger-ek eta Luca Bernini-k benetako eraldaketa bati ekiten diote, eta gure oinen azpian munduari etengabe kosk egiten dioten eta hura berrasmutzen duten izaki bizidun txikiak ezagutzera gonbidatzen gaituzte. Keinuaren antzerkia eta altxatze akrobatikoen arteko nahasketa den zirku-hizkuntzaren bidez, bikote akrobatiko honek umorez erakusten du zein den gure ekosistemaren indarra. Heriotzaren ondoren bizitzarik badago, hau da bizitza! Benetan alai!

<https://www.keepcompany.fr/>



KOILARA TEATRO
(Euskal Herria)
"La llegada"



Gaztelera

Laburpena

Ontzi estralurtar bat Lurrera iristear dago.

Gertakizun historiko hori kontatzeko irrikitan dauden bi irratierreportarik emango dute zuzenean. Beste galaxia batzuetatik datozeinei ongi etorria egiteko estrategia bat pentsatu eta gauzatu beharko dute.

Egia etxean ez dagoelako, egia hor kanpoan dagoelako.

Umore desberdinetik abiatuta, ezezaguna denaren etorrera nola bizi dugun kontatzen digute.

**UZTAILAREN 3A,
BARIKUA**

19:30

AREATZA

<https://www.koilarateatro.com/>



LA
TRAPECIONISTA
(Nafarroa -
Euskal Herria)
"Zuhamu"



Euskara

Laburpena

Bi emakume, bi akrobata, bi lagun, bi ahizpa, bi ezezagun, bi errefuxiatu, bi gizaki ihesean doaz, sutan dagoen mundu batetik ihes egiten dute. Zer nahi dute? Oinazeaz, zuhaitz bati entzun!

Zuhamu lanak zuhaitz batek egin dezakeenaz hitz egiten digu, grabitatearen aurka ur kantidad handiak ponpa ditzakeela, bere erresistentziaz, pisua jasateko eta bizitzari eusteko haren indarrak, lurrari eusteko eta hondamendi eta uholde handiak saihesteko legeen aurka eginez.

Baina baita zirkuak egin dezakeenaz ere, bizitzaren indar gobernaezinei zentzua ematen laguntzen duten metaforak egiten dituen giza zatiaz. Zirkuak bere mugak desafiitzen ditu eta gorputzak porrotaren edo heriotzaren aurrean jartzen ditu, edertasun mingarri bat, zuhaitz baten barruan ikusezina den misterioarekin berriro dardarara eragiten diguna.

Akrobata zirkurako nola, hala da zuhaitza lurrerako eta zerurako.

EKO – ZIRKUKO PIRINIOAK 2024-2027 aldirako lankidetzaproiektu bat da. 1.681.820 euroko aurrekontua dauka eta Europar Batasunak finantzatzen du % 65ean FEDER Eskualde Garapenerako Europar Funtsaren bidez eta Interreg V-A Espainia-Frantzia-Andorra programaren bidez (POCTEFA 2021-2027). POCTEFAren helburua mugaldeko inguruaren integrazio ekonomikoa eta soziala sendotzea da.

**EKAINAREN 30A,
MARTITZENA, ETA
UZTAILAREN 1A,
EGUAZTENA**

**17:15
(MARTITZENA,
30) ETA 17:30
(EGUAZTENA, 1)**

**CASILDA
ITURRIZAR
PARKEA- Ahateen
urmaelaren
inguruak
(3. gunea)**

<https://www.latrapeccionista.com/>



LA VENIDERA
(Madril)
"NO (pieza corta)"

Testurik ez

EKAINAREN 29A,
ASTELEHENA

18:45 / 20:45

CASILDA
ITURRIZAR PARKEA
– Pergola



Laburpena

"No" da aurrera jarraitzea bultzatzen gaituen pizgarria. Baina "No" etortzeke dagoen guztia ere bada.

Irene Tena eta Albert Hernández, La Venidera-ko bi kideak, lehen dantzari eta bakarlariak izan dira Ballet Nacional de España-n. Dantzako figura handiak dira, baina konpainian egindako lanaz haratago joan nahi izan dute, flamenkoaren eta dantza espainiarraren mugak zabalitzeko. No lanean negatiboan dagoen mundu bat aurkezten digute: absentzien eta gabezien unibertsoa, hutsunez betea, artearen bidea irekitzen duen errealitatearen ukapena. Tradizioaren eta gaur egungo munduaren arteko talkak, interpretatzaile bikote honen eskuetan, dantza espainiarraren hizkuntzari begirada berri bat ematen dio.

<https://lavenidera.com/>



LASALA
(Euskal Herria)
"Burnt"

Testurik ez

UZTAILAREN 1A,
EGUAZTENA

18:15 / 20:15

CASILDA
ITURRIZAR
PARKEA – Pergola



Laburpena

Gero eta zorrotzagoa den ispilu sozial baten aurrean, badirudi estrategia bakarra gauero aurrekoan baino distira handiagoz egitea dela. Hainbesteko kontsumoaren prezioa argiaren inguruan hegan egiten duten sitsek ordaindutakoa da: "burnout" edo erretze espontaneo batean kiskaltzeko arriskua.

<https://www.lasala-lasala.com/>



LE POLPESSE

(Frantzia)

"Attention à ta tête"

Testurik ez

EKAINAREN 29A,
ASTELEHENA

17:15 ETA 19:15

CASILDA
ITURRIZAR
PARKEA – Ahateen
urmaelaren
inguruak
(4. gunea)



Laburpena

Malabarismoa, antipodismoa eta mugimendua nahasten dituen ikuskizuna da, manipulazio modu berriak sortzeko, malabar tradizioaletatik urrun. Objektuak eskuekin eta oinekin harrapatzen dira; gorputzak malabarrekin nahasten dira eta malabarrak gorputzekin, eta badirudi azken horiek biderkatu egiten direla eta objektuak desagertu egiten direla.

3 malabarista, bainuontzi 1, 100 pilota, 11 maza eta 12 tentakulu. Horiek dira unibertso sentikor eta intimo bati bizia emango dioten elementuak, eta bertan murgilduko dira ikusleak 45 minutuz.

EKO – ZIRKUKO PIRINIOAK 2024-2027 aldirako lankidetzaz-proiektu bat da. 1.681.820 euroko aurrekontua dauka eta Europar Batasunak finantzatzen du % 65ean FEDER Eskualde Garapenerako Europar Funtsaren bidez eta Interreg V-A Espainia-Frantzia-Andorra programaren bidez (POCTEFA 2021-2027). POCTEFAren helburua mugaldeko inguruaren integrazio ekonomikoa eta soziala sendotzea da.

<https://laverrriedales.fr/compagnies/cirque-portatif/attention-a-ta-tete-cie-le-polpesse/>



LEIRE MESA

(Euskal Herria)

"La carencia de la diferencia"

Testurik ez

EKAINAREN 30A,
MARTITZENA

18:45

CASILDA
ITURRIZAR
PARKEA- Pergola



Laburpena

Nork zainduko du nire alaba?

Galdera hori da emanaldi honen abiapuntua eta hazkuntzan zaintza partekatze beharra aldarrikatzen baitu.

Trapezioa, zuzeneko musika eta dantza uztartzen dira pieza honetan, zaintzaren pisua eta poza partekatzen diren espazioan.

EKO – ZIRKUKO PIRINIOAK 2024-2027 aldirako lankidetzaz-proiektu bat da. 1.681.820 euroko aurrekontua dauka eta Europar Batasunak finantzatzen du % 65ean FEDER Eskualde Garapenerako Europar Funtsaren bidez eta Interreg V-A Espainia-Frantzia-Andorra programaren bidez (POCTEFA 2021-2027). POCTEFAren helburua mugaldeko inguruaren integrazio ekonomikoa eta soziala sendotzea da.

<https://www.lasala-lasala.com/>

Argazkia: Klara Pedrol



LOS GALINDOS
(Katalunia)
"MDR -
Muerte de risa"

Gaztelera

**UZTAILAREN 3A,
BARIKUA, ETA 4A,
ZAPATUA**

19:00

**SAN
FRANTZISKOKO
HIRI ORTUA
(Mariaren Bihotza
plaza)**



Laburpena

MDR deseroso sentiarazteko eta dibertitzeko fartsa bat da.

Melonek, Mardik eta Rossinyolek ustekabeko gatazka bati egin behar diote aurre. Beren izaera basati eta traketsak eta existitzeko beharrak obra gertagaitz batera daramatza, eta bertan askatasunez esploratuko dute edozein basakeria. Esperientzia barre-eragile eta izugarri horrek adiskidetasun zintzo eta latz baten istorioa kontatzen du, erantzukizun- eta erru-sentimenduak eraginda. Krimen gertagaitza, epaiketa zalantzarria eta zigor zentzugabea. Paradoxikoa bada ere, agian barrez lehertzeko gogoia eragingo dute.

Publikoaren Saria Valladolideko 2021eko Kaleko Arteen Nazioarteko Jaialdian.

*Sarrera gonbidapenarekin www.bilbokokalealdia.eus Web Orrian erreserbatu ahal izango dira.

<http://losgalindos.net/>



**MARGARIDA
MONTENÏ**
(Portugal)
"Blue"

Testurik ez

**UZTAILAREN 2A,
EGUENA**

17:45 ETA 21:00

**CASILDA
IRTURRIZAR
PARKEA –
Arte Ederren
Museoaren gunea**



Laburpena

Blue (urdina) aireko akrobaziako proiektu bat da, afektuari eta talkari, gauza intimoei eta publikoei, banakoari eta kolektiboari buruzko gogoetan oinarritua. Performance kontenplatibo eta intimo honetan zehar, hainbat paisaia iragankor, delikatu eta labur hedatzen dira; horiek iraupenaren, tentsioaren eta hauskortasunaren froga izango dira agertokiko lau gorputzentzat.

Esperientzia sentsoriala da, grabitatea adierazpenerako tresna bilakatzen da eta emakumezkoaren gorputza ardatz nagusi eta erresistentziarako lurralde izango da.

Blue aireko akrobaziako proiektu bat da, altueraren eta erorketaren, orekaren eta kontrapisuaren, sotiltasunaren eta indarraren pertzepzioarekin bisualki jolastu nahi duena, paisaia iragankorrak eraikiz. Aldi berean, zirku-teknika zaharren eta tradizionalenetako bat —soka bertikala— estetika eta planteamendu esperimental eta garaikideago batekin uztartzen du.

Blue esperientzia bisual eta sentsoriala da, grabitatea adierazpenerako tresna eta gorputza erresistentziarako lurralde bilakatzen direlako.

2025ean Interpretatzaile Onenaren saria jaso zuen TAC Valladolid jaialdian.

<https://margaridamonteny.com/>



PERE HOSTA
(Katalunia)
"Woof"

Testurik ez

UZTAILAREN 3A,
BARIKUA

17:30 ETA 20:30

AREATZA



Laburpena

Txakurrei egozten dizkiegun giza pentsamenduak irudikatzea... Hori da *Woof* ikuskizunak pailazo baten begiradatik erakusten duena. Denok hitz egin dugu txakur batekin eta haren erantzuna itxaron dugu; eta espero genuena erantzun digu beti: baietz! Pailazoak ere baietz esango dio guztiari. Txakurra animaliarik leialena da. Pailazoa leiala da bere publikoarekin. Dena publikoarengatik!

Ikuskizun interaktiboa da, emozioa eta barrea bilatzen dituena... amaieran zaunk! esateko.

<https://www.perehosta.com/>



PERE HOSTA
(Katalunia)
"Dis_order"

Testurik ez

UZTAILAREN 4A,
ZAPATUA

18:00 ETA 20:00

BIZIKIDETASUN
PLAZA
(Isozaki dorreen artean)



Laburpena

Egunero tramiteak egiten ditugu, dokumentuak aurkezten ditugu, ziurtagiriak bilatzen ditugu... Azken finean, paperak egiten ditugu. Gaur, bulegoa kalera aterako da, antolatzeke eta kontrolatzeko. Oinezkoak jasaten dituen arriskuak ikusteko. Bulegari honek espazioa eraldatuko du eta, lanean ari dela, gure emozioak ere eraldatuko ditu. Mundua aldatzera etorri da... edo behintzat saiatu egingo da! Ziurtasunak ziurtatzen dituen funtzionarioa, zeinaren lana desordenaren poetika bihurtzen den. Itxaron zure txanda!

Ez galdu bizi dugun mundu burokratikoaren absurdoari buruzko umore bisualeko ikuskizun paregabe hau; izan ere, mundu horretan sarritan ezarritako arauak naturaren aurkakoak dira eta lagungarri izan beharrean oztopo bihurtzen dira.

<https://www.perehosta.com/>



Argazkia: Stéphane Bluzat

RETOURAMONT (Frantzia) "L'Angle Disparu"

Testurik ez

UZTAILAREN 3A,
BARIKUA

18:30 ETA 21:00

BIZKAIA
ARETOA- EHU



Laburpena

Orokorrean, horma lurzorura hedatzen den gainazala da. Bi gainazal horien elkargunean, hormaren oinean, angelua sortzen da. Oinezko arruntak ikusten du angelu horretan bere ibilia eten egiten dela; gure dantzariak, ordea, lurrean ibiltzeko eta bere bilakaera naturaltasunez horman jarraitzeko gaitasuna du. Egokitzapena orientazio-aldaketa huts baten bidez egiten du: lurrean bertikalki ibiltzetik horman horizontalki ibiltzera igarotzen da.

Ibilera hori azkartu egiten da, eta dantzariak korrika eta jauzika egiten du. Horma eta lurra bereiztezin bihurtzen dira; dantzaria hiru dimentsioko gainazal batean mugitzen da, errebotez beteriko koreografia batean. Hormaren oineko angeluak ez ditu gorputzaren ibilbideak gehiago mugatzen; desagertu egin da.

<https://retouramont.com/>



Argazkia: Jaume Parol Casals

ROUGE ELEA (Iparralde – Euskal Herria) "Lurruna"

Euskara

EKAINAREN 30A,
MARTITZENA

19:30

CASILDA
ITURRIZAR
PARKEA- Ahteen
urmaelaren
inguruak
(5. gunea)



Laburpena

Lurruna, euskarazko hitza da. Gora igotzen den eta gero desagertu egiten den aire beroa da. Lurruna bizitzaren izaera iheskorren metafora poetiko bihurtzen da.

Hemen ez dagoen norbaitekin izandako elkarrizketa batekin hasten da. Paisaia arakutzen dugu, lerroaren beste aldean dagoen pertsona bilatuz. Auzo baten intimitatean sakontzea da kontua, norbanakoen arteko topaketa batean, lotzen gaituen leku batean.

Benetan presente al gaude gauden lekuan? Topaketa hau tarteko espazio batean gertatzen da: lurzorua eta zeruan hegazkinek uzten dituzten arrastoen artean; saihebidetaren eta zelai huts baten artean; zuaren eta guaren artean.

Leo Tolstoyk "zaldi batek bere inguruko munduari buruz daukan begirada" aipatzen zuen. Guk, berriz, auzo baten begirada aztertzen dugu, haren baitan zabaltzen eta desegiten den munduari buruzkoa. Ikusezin bihurtzeko nahia da, benetakoa gertatzen uztekoa eta gure presentzia munduan, hemen eta orain, errotzekoa.

EKO – ZIRKUKO PIRINIOAK 2024-2027 aldirako lankidetzaproiektu bat da. 1.681.820 euroko aurrekontua dauka eta Europar Batasunak finantzatzen du % 65ean FEDER Eskualde Garapenerako Europar Funtsaren bidez eta Interreg V-A Espainia-Frantzia-Andorra programaren bidez (POCTEFA 2021-2027). POCTEFAren helburua mugaldeko inguruaren integrazio ekonomikoa eta soziala sendotzea da.

<https://rougeelea.com/>



SOL PICÓ
(Katalunia)
"Carrer 024"

Testurik ez

**UZTAILAREN 4A,
ZAPATUA**

23:00

ARRIAGA PLAZA



Laburpena

Gero eta jendetsuagoa den planeta batean, pertsonak inoiz baino bakartiago sentitzen dira. Zirkuluan mugitzen dira, geldotasuna saihestuz, norabiderik gabe, osatuko dituen beste horren bila; jada identifikatzen ez dakigun benetakotasunaren bila, pertsona bakarti eta grisek osatutako eta harreman gehienak telematikoki gertatzen diren munduan.

30. urteurrenean, "Sol Picó"-k (Dantzako Sari Nazionala eta 10 Max sari) formatu handiko dantza berreskuratzen du, gaur egungo gizartean bakardadearen paradoxari buruz hausnartzen duen proposamen batekin.

Zuzeneko musikaz lagundutako eszenaratze ikusgarri eta hunkigarria. Publikoa libre kokatzen da eszenografian.

<https://solpico.com/>



SWEET CHILLI
CIRCUS
COMPANY
(Aragoi)
"Transh-
Humante(s)"

Testurik ez

**UZTAILAREN 4A,
ZAPATUA**

21:30

AREATZAKO KAIA



Laburpena

Aparkaleku huts batean, hiru pertsoniak aurre egiten diote beren existentziaren absurdoari. Autoen eta karabanen artean, elikatu, borrokatu, jolastu eta txinatar mastara igotzen dira, beren gorputzak eta emozioak desafiatuz. Jauziak, malabareak eta aireko dantza nahasten dira dramak eta umoreak bat egiten duten espazio batean, egunerokotasunaren eta kaosaren arteko etengabeko joko bat sortuz.

EKO – ZIRKUKO PIRINIOAK 2024-2027 aldirako lankidetzaproiektu bat da. 1.681.820 euroko aurrekontua dauka eta Europar Batasunak finantzatzen du % 65ean FEDER Eskualde Garapenerako Europar Funtsaren bidez eta Interreg V-A Espainia-Frantzia-Andorra programaren bidez (POCTEFA 2021-2027). POCTEFAren helburua mugaldeko inguruaren integrazio ekonomikoa eta soziala sendotzea da.



TRAPU ZAHARRA
(Euskal Herria)
"La última y nos vamos"

Gaztelera

UZTAILAREN 4A,
ZAPATUA

18:30 ETA 20:30

AREATZA



Laburpena

Garai onenean ez dagoen Kaleko Antzerkiko aktore batek zortea Aretoko Antzerkian probatzea erabakitzen du.

Bere helburua lortzeko, antzerki klasikoko aktore batekin elkartuko da eta obra berri bat muntatuko du: "Bost ordu Mariorik gabe".

Dirua biltzeko, bere aurreko konpainiarekin lan egin zuen plazetara joango da.

<https://trapuzaharra.com/>



TXEMA MUÑOZ
(Katalunia)
"Gota"

Testurik ez

UZTAILAREN 2A,
EGUENA

17:00 ETA 20:30

CASILDA
IRTURRIZAR
PARKEA - Pergola



Laburpena

Hodeien sabaiaren azpian, kalean ontzi bat ura biltzen ari da. Ur hori ez dator, ordea, zerutik. Euria desagertu da, eta jada ez zaigu haren oroitzapena besterik geratzen: fikzioa eta magia sartzen zaizkigu tartean, etangabeko antzerki-engainuen artean, tantaz tanta. Irudizko tanta horiek harridurazko etengabeko erritmo bihurtuko dira. Hala, irudizko eta fantasiatzko koreografia bat sortuko dute, sormenari eraginez, absurdoarekin jolasteko. Bat-batean agertutako kikara bat, poltsikoko txanpon urdurien txintxina, eta mahuketatik ateratako koilara-parrasta geraezin bat.

Gota kale-proposamen bat da, non magia nouvelle eta clown garaikidea elkarturik doazen. Objektuen manipulazioa, antzerki fisikoa eta komikotasuna hizkuntza poetiko, sentikor eta pikaro batez hitz egiten duen isiltasun batean.

<https://txemamunoz.com/>



ZIRKOZAURRE
(Euskal Herria)
"Ardatzak"

Testurik ez

UZTAILAREN 3A,
BARIKUA

18:00 ETA 20:00

BIZIKIDETASUN
PLAZA (Isozaki
dorreen artean)



Laburpena

Eta zuretzat, zer da diablo bat?


Txikienentzat, seguruenik, objektu exotiko eta ezezaguna izango da. Arrotza, arreta jartzen diozunean harritu eta hipnotizatzen zaituena.

Nostalgiaz eta irribarre konplizez ikusten dugu nagusiago askok. Zuri-beltzetik kolorera igaro ziren belaunaldientzat, diabolooa ohiko eta beharrezko jostailua izan zen. Hautzaro baten oroitzapen ederra, non pilotak, ziba, kanikak edo txapak ere ez ziren falta.

Gorka eta Imanol malabaristek biratu egin behar dute egonkorrak izateko. Diaboloek bezala. Haiekin aurkitu zuten zirkuaren mundua, beren biziizei zentzua ematen dien ardatzetako bat. *Ardatzak* ikuskizuna zerbait gehiago da. Egiaz eta poesiaz beteriko omenaldia da, batez ere.

<https://www.zirkozaurre.com/>

FOOD TRUCKS



TIPI TAPA

Hurbildu zaitetz eta gozatu "Tipi Tapa" menuaz. Hanburgesak, hot dogak, bokata eta patatak hainbat saltsarekin eskainiko ditugu.

LOIUKO EVENTS BASQUE SENSATION

Zatoz eta gozatu itzazu "Loiuko Events" momentuak... Aparteko eguna, gure espezialitateak dastatzen: glutenik gabeko taloak, txorizo, txistorra, odolki, solomo eta hirugihar ogitartekoak eta hanburgesa beganoak.

GARGANTÚA

Gargantua et Pantagruel legenda frantsesean inspiratuta, Bilboko irudi ikoniko hau 1854an hasi zen haurrak irensten eta, gaur egun ere, haren ahoa eta txirrista izuaren ikur dira txikienentzat.

Antonio de Echániz, "Etxaniz suhiltzailea", izan zen oso-osorik Bilboko den erraldoi horren sortzailea. Gargantua, erraldoia izateaz gain, aseezina da.

Bizitza ona eta munduko plazerrak gogora ekarri nahi zituen figura hori 1854. urtean atera zen lehen aldiz hiriko kaleetara. Ordutik, milaka haur jan ditu, hainbat aldaketa izan ditu eta desagertzeaz ere egon da.

Lehenengo aldiz 1854an atera ondoren, Gargantuaren irudi erraldoia beste 20 urtetan ere atera zen, 1874an bonba batek suntsitu zuen arte. 1897ko jaietan, herriak hala eskatuta, Gargantua berriro agertu zen, eta 1934an Higinio Basterra eskultoreak beste bat sortu zuen. 1950ean azken aldiz agertu ondoren, Gargantua Deustuko biltegi batean abandonatu zuten.

1962an jaietara itzuli zen eta, beste abandonu-aldi baten ondoren, berreraiki egin zuten, behin betiko, Bilboko Aste Nagusiarekin lotuta egoteko.

Gero eta ospe handiagoa zuenez, Gargantuaren bertsio berriak sortu ziren.

FOOD TRUCKS

EKAINAREN 29TIK
UZTAILAREN 4RA,
ASTELEHENETIK
EGUENERA

17:00 – 21:30

CASILDA ITURRIZAR
PARKEA (Ahateen
urraelaren
inguruak)

GARGANTÚA

EKAINAREN 29TIK
UZTAILAREN 4RA,
ASTELEHENETIK
EGUENERA

17:00 – 21:00

CASILDA ITURRIZAR
PARKEA (Ahateen
urraelaren
inguruak)



**HORTZMUGA
TEATROA
(Euskal Herria)
KALEKASILDA
2026. "Zelatan"**

Testurik ez

**EKAINAREN 29TIK,
ASTELEHENA,
UZTAILAREN 2RA,
EGUENA**

17:00

**CASILDA
ITURRIZAR
PARKEA**

Ahateen
urraelaren
inguruak



KALEKASILDA 2026


Kaleko Antzerki eta Arteen Jaialdiaren baitan, Bilboko Kalealdiak KALEKASILDA ekimena aurkezten du, Casilda Iturrizar parkean garatutako esku-hartze artistikoa. Proposamen honetan, "Hortzmuga Teatroak" parkeko gune ezberdinak eraldatuko ditu ingurunearen zaintza eta jasangarritasuna erdigunean jarrita. Hain zuzen, Iñaki Aguinagaren aldarri artistikotik abiatuta, aisialdira bideratutako ohiko espazioak ezusteko eszena xeble bilakatuko dira, birziklatutako material ezberdinen bitartez.

Aurtengo edizioan, "ZELATAN" kontzeptupean landutako instalazio artistikoak haratago begiratzera gonbidatzen gaitu zuhaitz bizidun eta berdeguneetan barrena. Hain zuzen, eszena-gune ezberdinen arteko zeharkaldi bitxi zein dibertigarria eskaintzeaz gain, esanahi edo eta begirada berriak bilatzeko aukera ezin hobea proposatzen du.

Era berean, proiektu honek bitartekaritza artistikoa du giltzarri, kaleko arteen eta komunitatearen arteko zubia egonkortu asmoz. Zehazki, "Hortzmuga Teatroak" bitartekari lanak egin ditu, "Dantzerti-Euskadiko Arte Dramatiko eta Dantza Goi-Mailako Eskolarekin" elkarlanean. Saio horien bitartez, zuzeneko interbentzio artistiko biziduna aurkeztuko du Casilda Iturrizar parkean ezarritako KALEKASILDA instalazioan zehar.

Proiektuak ikuspegi umoretsua, jasangarria eta irisgarria eskaintzen dio nazioarteko jaialdiari. Adi, ZELATAN duzu Bilboko Kalealdia.





Casilda Iturrizar parkea
Parque de Doña Casilda



2. GUNEA
ESPACIO 2

1. GUNEA
ESPACIO 1

3. GUNEA
ESPACIO 3

AHATEEN
URMAELA
ESTANQUE
DE LOS PATOS

PÉRGOLA

PERGOLARANTZ
PASEALEKUA
PASEO HACIA LA
PÉRGOLA

5. GUNEA
ESPACIO 5

FOODTRUCKS
GARGANTUA

4. GUNEA
ESPACIO 4

MUSEOAREN
GUNEA
ZONA DEL
MUSEO